

Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamendu Sailak 305 milioi euro baino gehiago jarriko ditu toki entitateen esku

FOFELez gain, Obra eta Zerbitzuen Foru Planak eta Obra Txikien eta Auzo Harremanen programek bultzada ekonomikoa jasoko dute 2024rako

Anartz Gorrotxategi foru diputatuak azaldu duenez, Foru Aldundiak 5 milioi euro baino gehiago bideratuko ditu Araba Digitaliza programara, eta sailak GeoAraba bultzatzeko apustua egin du

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 20a. Arabako Foru Aldundiak 2024rako aurrekontuen proiektua disezcionatzen jarraitzen du. Dokumentu horrek 305 milioi euro baino gehiago biltzen ditu lurraldeko toki-erakundeentzat, Lurralde Oreka eta Lurralde Antolaketa Sailaren barruan. Hala azaldu du Anartz Gorrotxategi diputatuak, eta azpimarratu du zifra horiek "gure toki entitateen egungo beharrei erantzutea eta etorkizunari baikortasunez begiratzea" dutela helburu, "arabar guztien ongizatean eta bizi-kalitatean inbertituz. Garai berriek beharrezko egiten dute gure beharrak Arabako herritarren errealitate eta eskaera berrietara egokitzea".

Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtza (FOFEL) da, zalantzarik gabe, baliabideak banatzeko tresna nagusia. 2024an, Aldundiak 277 milioi banatuko ditu bide horretatik, 13,6 milioi euro gehiago 2023ko hasierako aurreikuspenarekin alderatuta, hau da, zuzkiduraren % 5,17ko gehikuntza. Finantzaketa horrek 5.168.000 €gehiagoko funts gehigarria du, eta funts orokorra banatzeko irizpide berberekin banatzen dira.

Baina ez hori bakarrik, Obra eta Zerbitzuen Foru Planak 19.389.126 euro izango ditu datorren urtean, ia milioi bat euroko igoera. "Garrantzitsua da indartzea, tresna horren bidez toki-erakundeek kalitatezko oinarritzko zerbitzuez hornitzea lortu baitute, baita landa-ingurunean bizitza-proiektu bat gauzatzeko pizgarria handitzen duten ekipamenduetan inbertsioak egitea ere. Lurrarekiko lotura emozional edo produktiboaz haratago, lurraldean giza eta gizarte garapena dakar horrek", zehaztu du Anartz Gorrotxategik.

Obra txikiei eta auzo-harremani dagokienez, programa honen adierazlerik aipagarrienak honako hauek dira: hainbat deialdiren babesean egindako jarduketan eskaera handia eta iraunkorra. "Horrek argi eta garbi berresten digu tresna horren baliozkotasuna eta eraginkortasuna". 2024rako aurreikuspena 2.615.993 eurokoa da, aurreko edizioan baino 125.146 euro gehiago.

Funts eta laguntza horiez gain, Arabako Foru Aldundiak kudeaketa integraleko sistema informatiko bat jarriko du udalen, koadrilen, partzuergoen eta administrazio-batzarren esku, hori guztia Araba Digital programaren barruan. 2024rako aurrekontu-proiektuak 5,5 milioi jasotzen ditu toki-administrazioa digitalizatzeko, tokiko kudeaketa-aplikazioak modernizatzeko, herritarrek eta toki-erakundeetako langileek erabilgarritasun handiagoa izan dezaten.

"Bere azken helburua herritarrentzat balio publikoa sortzea eta justizia soziala bermatzea da. Digitalizazioak herritarren eta administrazioaren arteko harremana hobetzen du. Horrek zerbitzuak eskuratzeko eta emateko bide berriak garatzea dakar, baina baita administrazio-izapideak sinplifikatzea eta erraztea, gardenagoa eta parte-hartzaileagoa izatea eta herritarren eskubideak betetzeko bermeak eskaintzea ere, hori guztia baliabide publikoak zentzuz erabiliz ", adierazi du diputatuak.

Lurralde Antolamendua

Sailak, gainera, herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko eta ahalik eta datu-base eguneratuena izateko asmoa du. Apustu sendoa egin nahi da 1:500 eta 1: 5.000 eskalen kartografiak eguneratu eta digitalizatzeko, bai eta udal HAPOak digitalizatzeko ere, denbora errealean zintzilikatuta, GeoArabaren bidez klik eginda eskura egon daitezen.

Ildo horretan, GeoAraba sustatuko da, bai barne-erabileran, sail guztien parte-hartzearekin eta informazio geografikoko iturri eta erabilgarritasun berrien baturarekin, bai kanpo-mailan, herritarrei zerbitzu hobea emateko lan eginez. Gorrotxategiren arabera, "jarraitu egingo dugu plataforma etengabe hobetzen, sektore anitzeko informazio geografiko berria argitaratzen eta informazio hori finkatzen, Aldundiaren plataforma horizontal gisa, gerta daitezkeen osagai geografikoko beharrian desberdinei erantzuteko. Helburua kartotekako, fototekako eta deskarga-eremuko zerbitzuak bateratzea da. Geoteka honek lurraldeko edozein punturekin zerikusia duten era guztietako dokumentuak kontsultatzea eta deskargatzea erraztuko du, modu errazean ". GEOAraba plataformaren inguruko eguneratze-, digitalizatzeko- eta komunikazio-prozesu hori guztia 150.000 €-koa da guztira, 2025eko ekitaldirako 170.000 €-ko aurreikuspenarekin.

Azkenik, 30.000 euroko partida berri bat sartu da aurretiazko aholkularitza baten hasierako lanetarako, ALHren (biki digitala) Eredu Digital Tridimentsional bat egiteko. Eredu hori, laburbilduz, 3-Dko datu-base komun bat egitean datza, lurralde osorako, etorkizuneko funtsezko tresna gisa, lurralde-informazio, datu, kartografia eta abar modu seguruan eskuratu ahal izateko. Herritarrek erabil dezakete, bai eta sail guztiek ere, eta modu koordinatuan jarduteko lagungarria izango da.